· ERREPORTAJEA INSTRUMENTU TALDEEN I LEHIAKETA · GEHIGARRIA KILIBARREN
·KULTURA IÑAKI LARRAÑAGAREKIN ELKARRIZKETA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko apirilaren 26a/X. urtea/402. zkia



## Instrumentu taldeen I lehiaketa

## "ELGOIBARKO HERRIA"

# ARMERIA ESKOLA

## Goimailako L.H.ko Berariazko institutoa

Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel.: 943 20 32 44

## 2002/2003 IKASTURTEA

## HEZKUNTZ ESKEINTZA
## "A" eta "D" EREDUAK (Gauez eta E • unez)

| | |
|---|---|
| BATXILERGOA | ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOA |
| ERDIMAILAKO ZIKLOAK | MEKANIZAZIOA<br>EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK |
| GOIMAI LAKO ZIKLOAK | MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA<br>PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA<br>INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA<br>TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK<br>ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK |

NTEGARTE CAEEKU "TALDE EKINTZA" ZUREA ETA GUREA

AENOR ER-0712/2/00

ISO 9002

**IZENA EMATEKO:**

Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, maiatzaren 2tik 10era.

Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 3tik ekainaren 12ra.

14).« L



## TELGOIBAR B.H. Institutua

## 2002/2003

Arregitorre, 2
Tel. 943 74 80 19
Faxo. 943 74 82 30
Eposla: belegoa@elgoiborlezitek-net
web: www.elgoibar.hetitelcnet

## BATXILERGOETAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

**NATUR eta OSASUN Z1ENIZIEN BATXR.ERGOA**

■ Zientifiko-Tekniko aukera    tr Osasun aukera

**G1ZA eta G1ZARTE ZIENTZIEN BATXRERGOA**

EGizarte Zentzten aukera    ■ Humanitate aukera

**TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA**



AENOR ER Onartutako enpresa (1L.111.1.

IQNet

**BADOLERGORAKO AURREMAIIIIKUIA EPEA: maiatzaren 2tik 10ra arte**

**600 ikasle inguru** beraien dorkizaina jorralzen • **45 ikasgairen** eskainiza. Ikasle bakoitzak bere bidea aukera dezan • **Azpiegitura teicnologiko aurteratuena.** Etorkizunerako prestakuntza zturtatuz • **150 9002 karrtate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolcrtuak - **80 lizentziatu, ingeniari edo diplornatu.** Unibertsitate eta goi mailako zildcettarako **prestakuntza zuzena** • **Selektibitateko ernaitza ezin hobeak.**



## Akaso

Gorri kolorekoa ikusten dut bizitza aspaldian. Korapiloak liburuan gorria sinbolo gisa erabiltzen dudala esan zidan irakurle batek. Gorria da istorioak lotzen dituen bufandaren kolorea, gorri kolorekoa da orriak zipriztintzen dituen odola eta gorria da pasioa hobekien deskribatzen duen tonalitatea. Gauzek badute beraien zergatia. Ez dakit patuak eraginda edo kasualitatez baina...

Hara, egunkari batetan palestinar eta israeldarren arteko gatazkaren inguruko erretratuak ikusten ari nintzela, atentzioa eman zidan gerraren zuri-beltzeko irudi tristeetan nabarmentzen zen lepoko batek. Neskato batek zeraman eta gorria zen. Batek baino indar gehiago zeukan, dozena bat tankek baino bortitzago astintzen zituen begiak.

Asteartean, Liburuaren Egunean, La niña del abrigo rojo izeneko liburua deskubritu nuen. Roma Ligoeka autoreak bost urte zituen nazien eskuetan heriotzatik ihes egitea lortu zuenean. La lista de Schindler pelikula zuri-beltzean egin zutenean, kolore bakarra Ligockaren beroki gorriak zeukan.

Ez dakit etorkizuna idatzita dagoen. Baina nik bizitzak dituen milaka detailetan sinesten dut. Akaso urte batzuetara neskatila palestinar baten lepoko gorria protagonista izango da edozein pelikula, Marrazki, liburu edo abestitan. Akaso.

**"Ez dakit etorkizuna idatzita dagoen. Baina nik bizitzak dituen milaka detailetan sinesten dut".**

Jasone Osoro



## Batatsuna

25 urte pasatu dira Espainiar Estatuan Erreforma Politikoa martxan jarri zenetik. "Zerbait aldatzea denak berdin jarrai zezan" hori izan zen Erreforma hori zuzendu zutenek zuten helburua. Hala ere, konzesio zenbait ematekotan aurkitu ziren, frankismotik atera berri egonik, beste aurpegi bat eman beharra baitzegoen. Gaur egun, 25 urte beranduago, Francoren garaian Estatuko politika zuzendu zutenek berriro ere daukate zartaina kirtenetik helduta eta 25 urte horietan egindako "berrikuntzak" bertan behera botatzen hasiak daude. Bukatu dira Autonomia Estatutuak, botere deszentralizatuak. Espainia bakarra eta handia da hemen eraiki behar dena. Unibertsitatearen legea, Lanbide Hezkuntzari dagokiona, Kalitate Legea, Humanitate dekretoa, reforma laboralak... bide horretan emandako pausoak dira. Euskal organizazioen ilegalizazioak (Askatasuna, Segi) eta orain Batasunarena burutu nahi ditu PPk, PSOEren laguntzarekin bai baitaki Ezker Abertzalea dela herri hau fase berri, demokratiko eta baketsu batera eramateko motorra. Baina ez gaitezen engaina. Hau Euskal Herriaren aurkako erasoa da, ez Ezker Abertzalearen aurkakoa. Batasunaren atzetik beste batzuk etorriko dira, PPk inolaz ere ez baitu onartuko bere interesen aurka doan praktika politikorik: autodeterminazio eskaerarik, referendum posibilitaterik. Beraz, landu dezagun, aitzakia merkeak alde batera lagata, erantzun ahalik eta indartsu eta zabalena. Gure herriaren eskubideak, demokrazia bera, jokoan baitaude.

Pello Mendizabal.

Kexak ........................................ 5
motz motz ................................. 8
gehigarria ........................
kiRolAk .................................. 20
aGenda .................................. 24

2002-IV- 26

## APARKALEKUAK DIRELA ETA

Lehendabizi, zorionak Artetxeko bizilagunei erakutsi duten adoreagatik, kezkatzen dituen arazo bati aurre egiteko elkartu eta udaletxera jo dutelako, elkarrizketarako asmoarekin. Beste alde batetik, aparkalekuak egiteko asmoa dela-eta, zera adierazi nahi dut; Urasandirako eman duten aukera Artetxekoaren antzekoa dela. Ezin da ukatu, hemen ere, aparkaleku arazoa oso larria dela. Gauean, etxera kotxez heltzen zarenean, ez duzu lekurik topatzen, ezta espaloietan ere. Hala ere, ez dut uste konponbidea, Artetxen bezala, Elgoibarren geratzen zaigun berdegune bakarretako bat kentzea denik. Dirudienez, ez Iukete pasealekua kenduko, baina kotxe artean, zarata, ke eta arriskuz inguratuta paseatzea ez litzateke berbera izango. Gainera ez dago garbi zer gertatuko litzatekeen monopatinarekin ibiltzeko pistarekin. Zertan geldituko litzateke kirol instalazio bau? Ziurrenik, orain dela urte gutxi umeak errepidean ez ibiltzeko eta hauei irtenbide bat emateko egin zuten; ahaztu egin al gara honetaz? Bada, nire semea benetan haserretu zen, aparkalekuarena entzutean. Aparkalekuen arazoa oso larria da, horretan denok gaude ados, baina parkeena eta berdeguneena era bai eta ez dut uste bat konpontzeko bestea hondatu eta okerrago utzi behar dugunik. Aparkaleku hauek momentuko konponbide baino ez lirateke. Urte gutxi barru egoera berean egongo ginateke, kotxez gainezka eta aparkalekua ezin bilatuta. Ez hartu momentuko irteera azkar eta merkea. Egin ikerketa globalagoa eta epe luzera baliagarria izango dena. Eta mesedez, entzun herritarren ahotsa.

**Xabier Osoro**

## ONARGARRIA BAINA LOTSAGARRIA

Gazte Asanbladak kalamuaren astearen barruan antolatu nahi zuen aurreneko ekintzari ezetza eman dio Mekanikako zuzendaritzak. Mariguanaren kontsumoa gure herrian begibistakoa dela denok dakigu nahiz eta batzuk onartu nahi ez. Jendea gazterik hasten da erretzen, ikasketak burutzen diharduenean normalean. Gure ustez, nahiz eta gaia oso bistakoa izan, hezkuntza alorrean itzalean gorde den zerbait izan da. Heziketa gabezia horretaz ohartuta, gai honetaz gazteria informatzeko asmoz, hitzaldi bat antolatu nahi izan dugu Mekanikan planteamentu honekin:

Gaia nahiko delikatua izanik, 16 urtetik gorako ikasleentzat zuzendutako hitzaldia izango da.

- Hitzaldiaren muina Kalamudia elkarteko 2 kideren laguntzaz Kanabisaren egungo legediaren berri jakinaraztea izango da.
- Hitzaldi objetiboa eta inor ezertara bultzatzen ez duena izango da.

Hitzaldi informatiboa zen soilik, baina itxuraz Mekanikako zuzendaritzari ez zaio egokia iruditu. Erretzen duten ikasle batzuekin arazoak dituztela esaten dute baina dirudienez nahiago dute arazoari adarretatik heldu baino beraien erara konpondu. IHESaren prebentzioaren informazio kanpainan hezkuntzak hartutako konpromisoak emaitza onak eman zituela ez dago dudarik. Ilunpean zegoen arazo bat gizarteratu zen denon onurarako. Zergatik beste ilunpeko arazo honekin ez dugu berdina egiten?

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Eskalea



Pezeta lagungarriak.

Euroa etorri zela-eta, azken pezeta txanponak bildu eta poltsikoan zituela irten zen kalera. Tabernetan euskararen alde jarritako kutxetako batera botatzeko asmo sendoa zeukan. Baina, San Frantzisko kalean behera zihoala, gizon pare bat ikusi zuen dirua eskatzen eta kezka sortu zitzaion. Goranzkoan, ordea, erabakia hartu zuen eta txanponak txirula modu traketsean jotzen zuen gizonaren kapelara bota zituen. "Hizkuntza bati baino, premia daukan pertsoniari ematia nahixago juat" pentsatu zuen eta Gabriel Aresti poetaren hitzak gogoratu zituen: "Beti paratuko naiz gizakiaren alde". Geroago, hartutako garagardoen eraginez, edanda ikusi zuen eskalea.

**Jon Eugi**

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
'rr 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com "
Hefbide inforrnatikoa:
www..topagunea.comfbarren
ARGITARATZAILEA
Elgobarko Izarra

UtauKrznaA Elgoibarko UdaIa Zuzzaawart Jon Iñaki Lasa KAzentRuu; Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea PUBLEITATEE. Amaia Erkizia MAKETATTAILEA Iker Oiego ADIONIETRAZIOA Arnaia RodrigezGERENIZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATIAILEIUS Ainhoa Lodaso, Nestor Fuenta, Pelb Mendizabal, Juan M. Elustando.Alberto Ansealegi, Edume Bilbaa, Goizon Arrima, Lorea Perez de Albenz, Jokin Ieartinez, MontseArregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe X.E. eta Urruzbdo AZALEKO ESAFAA EARARRA Gotzon Garateren thrulik INPRILIATEDIA CieriV Koop. E. TIRADA 4.025 ale LEGE GORDAILUA $S-1.038/92 ISSK 1139-1855

ELGOIBARK,012,01A

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sallak eta Foru Aldundiak diruz Iagundutako aldizkaria.*

zitt kutxa

41 .' DA NOBAT 1.2.0.5

5>GOITI 411 MARTA
ORLIAO oaNaeer

# <exa k

## '111,111it

• Ikastolarako bidean 2 kontenedore berde jarri dituzte espaloi erdian. Bertatik pasatzea oztopatzeaz gain, oso usain txarra egoten da. Lehen Ikastolako aldaparen hasieran zeuden eta hor ez zuten molestatzen.





-411( Plaza Txikiko parkean **2 kolunpioak hautsita** daude astebetez. Bestalde, iturrian, joan den astetik **zulo arriskutsu bat** dago. Umeak ibiltzen diren leku bat izanik, ez al dago konpontzeko asmorik?

## nuaol

• Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako **IX. HAUR KROSA antolatzen lagundu diguten guztiei:** Elgoibarko Udala, Udal Kirol Patronatua, Egotoki Elkartea, Mintxeta Atletismo Taldea, El Diario Vasco, Altzolako Urak, Netto, Eroski, Astigarraga Kirolak, Iriondo Kirolak, Joggers Kirol Arropa, Jai Alai Taberna, Lanbroa Kafetegia, Iturri Taberna, Azkue Argazkiak, eta batez ere babeslea izan den KUTXAri. Baita parte hartu duten neska-mutilei ere. Datorren urtean ere, apirilaren 6an, laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

**Elgoibar Ikastola**

Barrak, Birrak eta Barreak




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com helbidera.

# Erreportajea

## Musik TAWEEN NoibARREN

*Inazio Bereziartua Musika Eskolak Euskal Herriko Lehenengo "Elgolbarko Herria" Instrumentu raldeen lehiaketa antolatu du apirilaren 27 eta 28rako. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako partaideak etorriko dira Elgoibarrera. Guztira 45 talde eta 250 partaide izango dira lehiaketa honetan parte hartuko dutenak. Euskal Herri mailan egiten diren bakarretakoa da.*

Mari Jose Zubiaurre, Musika Eskolako arduradunak eman dizkigu Iehiaketari buruzko azalpenak. "Aspalditik geneukan antzerako lehiaketa bat prestatzeko ideia, baina leku aproposa eta finantziazioa behar genituen. Lekuaren arazoa, ordea, Musika Eskola berriaren eraikuntzarekin konpondu genuen. Lehiaketaren nondik norakoak definitu ondoren elgoibarko Udalarekin, Guillermo Garate alkatearekin, hain zuzen ere, Kutxa Fundazioarekin eta Elgoibarko Musika eta Dantza Fundazioarekin jarri ginen harremanetan, eta beraiei esker bihurtuko da proiektu hau errealitate".

Lehiaketa hau antolatzeko beste arrazoi bat ere izan dela gaineratu digu Mari Josek, "I992an LOGSE ezarri zenetik Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza sailaren helburuetako bat taldeko musika bultzatzea izan da. Batez ere,

"lehiaketa hau gaur egun musika eskoletan egiten den lanaren adierazgarri izatea nahi dugu"

instrumentu bat jotzen ikasi dutenek etxean gordeta eta erabili gabe eduki ez dezaten. Erreforma bakoitzaren hasieran sortzen den ezjakintasuna eta konfusioaren ondoren, dagoeneko badira 10 urte Euskal Herrian musika irakaskuntzan bide honetatik dihardugula, baina ezin izaten dugu kontrastatu gure ikasleekin egiten dugun lana. Lehiaketa hau antolatzearen arrazoia ikasle eta irakasleen arteko bilgunea topatzea da esperientziak



*Guztira 45 talde eta 250 partaide izango dira elgoibarren. Gipuzkaa, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik etorriak.*



*Hiru talde elgoibartarrek hartuko dute parte lehiaketan; 9,15 eta 18 urte bitarteko mailetan.*

trukatzeko, elkarren iritziak ezagutzeko etab. Baina denen gainetik irakaskuntzan kalitatea hobetzeko, indarrak batzea, eta ondorioz ikasleen artean motibazioa bultzatzeko. Azken batean, lehiaketa hau gaur egun musika eskoletan egiten den lanaren adierazgarri izatea nahi dugu".

## LEHIAKETAREN OINARRIAK

- 18 urtera artekoa da adin muga eta edonor aurkeztu daiteke (Musika Eskoletako ikasleak, Akademietakoak, Eskola partikularrak jasotzen dituztenak, Ikastetxeetakoak, etab.)

- Partehartzaileak 4 adin mugetan banatu dira:
*9 urtera bitartekoak
*12 urtera bitartekoak
*15 urtera bitartekoak
*18 urtera bitartekoak

- Talde bakoitza, gutxienez 2 tresna desberdinez osatu behar da. Ahotsa ere instrumentu gisa kontutan hartua izan da.

- Egitaraua librea da, eta partituretan norberak egindako konponketa edo berrikuntzak sartzea posible da.

## "5 instrumentuen arteko koordinazioa lortzea da zailena"

*18 urtetik beherokoen mailan parte hartuko duen boskofe elgoibarfar batekin hilz egin dugu bere prestakuntza eta itxaropenei buruz. Honako hauek dira taidekideak, beraien izena, adina eta jotzen duten instrmentua: Julen Azpiazu, saxofoi baritonoa (16 urte). Ander Sanchez, saxofoi tenorea (18 urte). Aitor Nova, saxofoi aitua (16 urte). Unai Alonso, saxofoi aitua (17 urte). Xabier Gil, perkusioa (15 urte). Miguel Goiburu, saxofoi maisua.*

### Zer haloratuko dute epaileek?

Instrumentuak jotzeko trebetasunaz aparte, sormena, originaltasuna eta piezaren zailtasuna ere hartuko dituzte kontutan epaileek. "Epaimahaia aukeratzeko orduan instrumentu familiak kontutan izan dira, eta Euskal Hen•ian musikan jakitun diren hainbat profesional aukeratu dira", aipatu digu Mari Josek. Honako hauek osatuko dute epaimahaia: Katalin Bucaratu (Bibolina) Euskadiko Orkestrako kide, eta Donostiako Orfeoiaren tailerrean irakasle. Jon Lizaso (Tronpa) Donostiako Kontserbatorio Nagusiko irakaslea eta "Pablo Sorozabal Boskoteko" kidea. Cesar Zapirain (Oboea). Donostiako Kontserbatorio Nagusiko irakaslea. Maria Jose Cano (Pianoa) El Diario Vascoko musika kritikoa eta Pasaia Musikaleko irakaslea.

### Ordutegia

Zapatua (Apirilak 27)
- 10:00etatik 10:30etara (9 urtera bitartekoak)
- 11 :00etatik eguerdira (12 urtera bitartekoak)
- 16:00etatik iluntzera (18 urtera bitartekoak)

Domekia (Apirilak 28)
10:00etatik 11:30etara (15 urtera bitartekoak)
- 12:00etan Sari Banaketa eta irbazleen aktuazioa

### Talde elgoibartarren ordutegia

3 instrumentu talde elgoibartarrek hartuko dute parte lehiaketan. Honako hauek dira euren aktuazioen ordutegiak
- Zapatuan (11:30) 12 urtera bitartekoak.
  Zapatuan (16:00) 18 urtera bitartekoak
- Domekan (10:00) 15 urtera bitartekoak



*Epaileek parte hartzaile gaztetxoen trebetasuna, sormena, originaltasuna eta abestien zailtasuna baloratuko dituzte.*



• Zenbat denbora daramazue instrumentua jotzen? Bataz beste 6 eta 8 urte bitartean.

• Noiz hasi zineten Instrumentu Taldeen Lehiaketarako prestatzen? Duela hilabete inguru.

• Nabaritu al duzue hobekuntzarik? Bai, noski, entsaio guztiak pieza bakar bat entsaiatzen pasatzen baititugu.

■ Zein da zuek aukeratu duzuen pieza? Henry Manciniren "The Pink Panther" abesti ezaguna aukeratu dugu, pieza hau saxofoi laukotea eta perkusioarentzat bereziki pentsatutakoa baita. 3 minutuko iraupena dauka.

111 Nolakoa da txapelketaren funtzionamendua? Nahi diren instrumentuz osatu daitezke taldeak. Izan daitezke gurea moduan saxofoi laukotea perkusioarekin edo bibolinak pianoarekin edo kitarrak akordeoia eta klarinetearekin, etab. Konbinazioak mugagabeak dira. Talde bakoitzak gehienez 5 minutu ditu prestatu duena jendaurrean jotzeko eta piezen aukeraketa librea da, edozein pieza aukeratu daiteke.

• Zer da zailena? Agian, kide guztion eta 5 instrumentuen arteko koordinazioa lortzea. Lehiaketaren egunean, berriz, zailena jendaurrean jotzea izango dela pentsatzen dugu. Epaimahaiak ere errespetua ematen du, musiko oso onak baitira, Euskadiko Orkestrako kideak, etab.

• Zer baboratzen dute epaileek? Musikalitatea, erritmoa eta koordinazioa.

• Zer itxaropen dituze. Zaila da jakitea, ez baititugu gainontzeko partaideak eta daukaten maila ezagutzen. Horrelako txapelketa batean parte hartzen dugun Iehen aldia da. Egia esan, ez dira talde instrumentalen lehiaketa asko antolatzen inguruan. Gehienez, akordeoi edo piano Iehiaketak izaten dira. Dena dela, ahal dugun hobekien egitea da gure asmoa. Gainera, jendea ezagutzeko aukera emango digu. Gure maila zein den ere jakin ahal izango dugu beste partaideenarekin konparatuz.

# "Gu eta zu misiolari" erakusketa jarriko du ikusgai Parrokiko Misio Taldeak Kultur Etxeko sotoan

## Peruko Yungai barrutiko komunitateak alfabetatzeko proiektua aurkeztuko dute

Parrokiako Misio Taldeak "Gu eta zu misiolari" izenburupean erakusketa antolatu du. Bertan urtean zehar egiten dituzten ekintzen berri emango dute. Besteak beste, munduko hainbat lekutako haurren amabitxi zein aitabitxi izateko kanpainak antolatu izan dituzte eta jadanik 66 haur besoetako dauzkate. Bestalde, bidezko merkataritza bultzatzeko denda ipini ohi dute Misio Taldekoek Gabonetan, eta erakusketan bertan ere salgai izango dira Hirugarren Mundutik ekarritako hainbat produktu. Honetaz gain, zenbait panelen bidez Elizbarrutiak egindako ekintzak ere azalduko dituzte.

**Perura laguntza**

Aurtengo erakusketak, ordea, helburu berezi bat izango du. Perun dagoen Tomas Aranberri misiolari elgoibartarrak bidalitako proiektu bat aurkeztuko baitute bertan. Peruko Yungai barrutiko komunitate batzuk alfabetatzea da proiektu honen asmo nagusia eta horretarako dirurik ez dutenez, elgoibartarroi laguntza eskatuz beraien nahiak errazago betetzeko esperantza dute.



*Parrokiako Misio Taldeak munduko haurrak apadrinatzeko kanpainak egin ditu.*

Beraz, Parrokiako Misio Tadeak egiten dituen lanak ezagutu eta Peruko proiektuaren berri izan nahi zein elkartasuna adierazi nahi dutenek, erakusketa apirilaren 29tik maiatzaren 5era bitartean egongo da irekita, Kultur Etxeko sotoan. Astegunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:30era arte eta jaiegunetan, berriz, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bitartean. Misio Taldekoek lerro hauen bidez herritarren arreta eta laguntza eskatu nahi dute.

# Edadetuentzat plaza gehiago izango dira Deba Kostako egoitza eta eguneko zentruetan

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diseinatutako Gizarte Zerbitzuen Plangintzan dira berrikuntzak

2002-2010 urte arterako Gizarte Zerbitzuen plangintza diseinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Honekin, edadeko pertsonen zainketan, etxez-etxeko zerbitzuetan, ezinduen arloan, zein babesik gabeko haur eta helduetan egon daitezkeen arazoak konpondu edo neurri batean gutxitu nahi dituzte. Biztanleria zahartzen ari dela ikusita hauek zaintzeko irtenbideak aurkitu asmoz, egoitzetan eta eguneko zentroetan plazak gehituko dituzte.

**Edadetuak**

Debarroan, Deba Kosta izendatu duten gunean (Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku), guztira 22.076 biztanle zeuden 2001ean, horietatik 4.283 ziren 65 urtetik gorakoak. Gaur egun, bi eguneko zentro daude gune honetan, Deban eta Elgoibarren, guztira 30 lagunentzako kabidarekin. Edadetuentzako egoitzak, beste bi dira, Mutrikukoa eta Elgoibarko San Lazaro egoitza. Bi egoitza hauetan 90 edadeturentzako lekua dago denera. Plan berriaren arabera, eguneko zentroetan 2010erako 57 plaza izatea espero da eta zaharren egoitzetan, berriz, 183.



*Gaur egun edadetuentzako bi egoitza daude Deba Kostan, guztira 90 lagunentzako lanarekin.*

Plangintza honek, bestalde, psikogeriatria plazak gehitzea, tutoretzapeko etxebizitzak sortzea eta familia babesa eta etxez etxeko laguntza indartzea du helburu.

2002-IV-26

## Udalak elkarlanerako hitzarmena sinatu du Badihardugu euskara elkartearekin

Debarroko gainontzeko udalek bezalaxe, Elgoibarko Udalak Badihardugu euskara elkartearekin elkarlanerako hitzarmena sinatu du. Euskalkiak eta herrietako hizkerak baloratu eta indartzeko sortu den talde honen helburuak euskararen kalitatea hobetzea, herriko hizkera erakustea, transmisioari garrantzia ematea eta herri hizkeren prestigioa berreskuratzea dira. Helburu hauek bete asmoz, Badihardugук hitzarmena sinatu du Debarroko udalekin.Udalak biztanle bakoitzeko 0,03 euroko ekarpena egingo du urtero eta bileretarako aretoak utziko ditu.



## Liburutegiko VIII. Marrazki eta Idazlan Lehiaketan 274 ikaslek hartu dute parte



*Liburuaren egunean, apirilaren 23an, egin da sari banaketa*

Joan den asteartean Liburuaren Eguna izan dela-eta, Udal Liburutegian VIII. Marrazki eta Idazlan Lehiaketako sari banaketa egin da. "Eta handitan, zein lanbide?..." gaitzat hartuta guztira 274 ikaslek hartu dute parte lehiaketan, 188 marrazki eta 86 idazlan jaso dituzte. Irabazleek liburu sorta bana jaso dute sari moduan.

### SARIAK

**MARRAZKIAK**

1. maila: Ifziar Mdalur
Aipamena: Amaia Loiola
2. maila: ksu Mujika
Aipamena: Andrea Arce
3. maila: Angef Isasti
Aipamena: Kaiet Arce
Aipamena: Maitane Caro
4. maila: Andrea Osoro

**IDAZLANAK**

5. maila: Danel Mendibil
**6. maila: Iker** Esnaola

## Danobateko euskara planeko partaideek bertso-trikiti afaria egin zuten Gure Biden

Danobat enpresan euskararen erabiiera bultzatzeko plana martxan dago, eta plana bideratzen duen Euskara Batzordeak joan den ostiralerako, apirilak 19, bertso eta trikiti afaria antolatu zuen. Gure-Bide Elkartean izan zen afaria eta bertaratu zirenek German Meabebasterretxea, Mañukorta eta Narbaizaren bertsoak zein Baltzola anaien trikiti doinuak entzun ahal izan zituzten. Esan digutenez umore onik ez zen falta izan eta Mañukorta txisteak kontatzera ere animatu zen, guztiak barre algaraka jarriz.



## IMHko 7 ikasle atzerrian ari dira praktikak egiten



Joan den apirilaren 15ean IMHko 7 ikasle atzerrira abitu ziren praktikak egitera. Orain dela urte batzuk hasi zen eskola ikasleei atzerrian praktikak egiteko aukera ematen, eta ordutik Confebasken bitartez edo Leonardo proiektuarekin gero eta ikasle gehiagori eman nahi zaie aukera, IMHn ikasitakoa kanpoan praktikan jartzeko. Aurten, Ingalaterra, Finlandia eta Austriara joan dira ikasleak eta bertako enpresetan bi hilabete eta erdi inguru pasatuko dituzte prestakuntza lanetan, baita ingelesa praktikatzen ere.

## Jaurlaritzak dirulaguntzak emango ditu 2. eta 3. haurra izateagatik.

# Nahikoa al dira Jaurlarittaren laguntzak jendea haurrak edukitzera animatzeko?



### MERCHE GOMEZ
39 urte, etxekoandrea

Ez dut uste. Nik behintzat bi ume ditut eta diruarengatik ez nintzateke beste bat ekartzera animatuko. Baina arrazoia ez da dirua, haurrek ematen duten lana baizik.



### 1111ENDIETA
33 urte, etxekoandrea

Ezta pentsatu ere. Gaur egun, haurrei onena eman nahi diegu, eta ume batekin nahikoa da, Beraz, dirulaguntzek ni behintzat ez naute animatuko.



### JUAN JIMENEZ
28 urte, tornularia

Ezetz uste dut. Diotenez haur batek bizitzako lehen urtean milioi bat pezetako gastua ekartzen die gurasoei. Beraz, kontuak aterata ez da errentagarria.



### ROSA MARI SALEGI
40 urte, etxekoandrea

Ez, diru horrekin ezin leike inor animau, beste arrazoi batzuk bihar dia umia eukitzeko pausua emateko. Gainera, dirulaguntza horregatik ez dau merezi erresponsabilidade hori hartzerik.



### JESUS ANGEL HIJAND
34 urte, irakaslea

Ez dut uste jendeak umerik izango duenik diru horregatik. Laguntza bada, baina ume batek duen kostuarekin ez da nahikoa.



### RLFREDD 1111011IREAL
70 urte, jubilatua

Bai, zalantzan daudenak baliteke animatzea. Baina zenbat eta laguntza handiagoak eman orduan eta bikote gehiagok izango lituzkete umeak.

**Udaberriko menu bereziak**

Perretxikoz beteriko rablollak
Endibia entsalada gazle freskoarekin
Ahate confit-a sagar erara
Izokina saltsa Hotandesarekin
Etxeko postrea eta kafea

*12 euro*

*Basarte Azezoa, 4*
*Telf. - Fax; 943 743 426*
*20870 Eloibar*

%1151IPTE I
JATETXEA

**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak** **Enbutidoak**
**Baserriko ogia** **Bolleria**

San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Tr 943 74 33 92

2002-IV-26

# osasunal

**IDOIA ARRILLAGA**
**Ibiltzen Podologia Zentroa**



## OINAK, UDAN ARINAK

Udaberria aurrera doa eta laster helduko da uda. Horrekin batera hondartza, eguzkia, igerilekuak, beroa... Faktore hauek eragina dute oinak zaintzeko. Honako neurriak hartu behar dira udan:

cl■ **Igerilekuak, aldagelak, leku publikoak**

Txankletak erabili: onddoak, papilomak, zauriak eta infekzioak saihesteko.

Garbitu eta lehortu: Hezetasunaren ondorio izan daitezke onddo eta papilanak.

c■• **Hondartza**

Aurretik eta ondoren hidratatu: Oin azpiak hondarraren herotasunak erretzen ditu eta arearen gainean ibiltzeak oinei eraso egiten die, baita eguzki izpiek ere.

•ᴼ **Oinetakoak**

Erosoak: Malguak, zola amortiguatzaileak (ez oso finak), material nobleak (oinak traspiratzeko). Oinak beroarekin handitu egiten direla kontuan hartu behar dugu.

Sandaliak: Oinari ondo eusten diotenak (beti orpoari lotuak). Zueko erakoak ahalik eta gutxien erabili.

### "Oinak beroarekin handitu egiten dira"

co• **Zauriak**

Oinetan zauriren bat egin edo zerbait sartuz gero podologoarengana edo larrialdi zerbitzuetara joan. Ez inoiz besterik gabe utzi, batez ere diabetikoek.

c$. **Prestaketa**

Lehen aldiz sandaliak jantzi aurretik podologoarengana joan oinak inolako lotsarik gabe erakutsi ahal izateko.

**Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra**

## Osasun txokuak

### MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**
P.M. Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**
Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda**
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)
San Frantzisko, 23 • TeL **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus Optiko-optometrista**
**San Bartolome, 10** • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
**(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)**
**San Frantzisko**, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Ibiltzen**
Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**
Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

# nola ALDATU diren gauzak!

2002-IV-26






1973. Argazki honetan oso eder agertzen den Lerungo futbol zelai "zaharra", birmoldatu egin zen 1973an, Joxe Ma Oruesagasti C.D. Elgoibarko Lehendakaria zelarik. Lerun izan da Euskal Herriko zelai zaharrenetakoa. Historia handikoa eta oso ezaguna kanpoko ekipo askorentzako. Zenbat gauza, istorio, pasadizu... konta daitezkeen Lerungo zelaian gertatutakoei buruz. Duela urte gutxi esan zigun agur lur eder honek.

2002. Hona hemen Lerun zaharra, erabat aldatuta. Gaur egun, futbol zelai berria San Roke bailarako "Mintxeta" baserri ondoan dago. Urteak joan, urteak etorri, Elgoibar asko aldatu da eta aldaketa honetan, industriak ere eragin handia izan du; Elgoibar industria mailan ere ezaguna baita gaur. Lerunen ere enpresek hartu dute Iekua, eta zelai berdearen ordez industria pabiloiak ikus ditzakegu bertan.




karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



INTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xiilon. 2 , 3 sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KONIUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

ENPRESAK ERATZEKO OINARRIZKO FORMAZIO I KASTAROA




NEGOZIO BAT ERATZEKO ASMOA DUTEN EMAKUMEEI ZUZENDUA

%100EKO DIRU LAGUNTZAREKIN

Europa Gizarte Fondoa — Fondo Social Europeo

HELBURUA:
Enpresa berri bat edo negozio **bat** eratzeko proiektua duten emakumeei, proiektua aurrera eramateko dituzten aukerak aztertzeko, beharrezkoak diren ezagutzak eskaintzeko, eta enpresa gestionatzen erakusteko,

EDUKIAK:
- Enpresaren eraketa
- Enpresa ptanaren eredua
- Marketing eta gestio komertziala
- Ekonomi eta finantza azterketa
- Giza baliabideen kudeaketa
- Ingurumenarekiko ardura
- Lan arriskuen prebentzioa
- Aukera berdintasuna

IRAUPENA: 90 ordu

LEKUA: Debegesa. Azitaingo Industrialdea, 7. Gizarte Zentrua. 20600 Eibar

HASIERA EGUNA: 2002ko maiatzaren 8an

INFORMAZIO GEHIAGO: 943.820179

E-maila: corree@debegesa.com

EUSKO JAURLARITZA — JUSTIZIA, LAN ETA GIEAE;TE saanurrzkaw.

GORIERE10 VASCO — DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMELE-0 t SEGURIDAD SOCIAL.

Debegesak antolatua
Europako Gizarte Fondoak finantziatua
Laguntzailea: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Segurtasun Saila

Ki BaRRen

2002ko apirilaren 26a/ X. urtea/84. zkia

# Bartzelonako irabazi zuen Mendarolla Alo Fronenis maratoie

## Duela bi urte bezalaxe, Judith Campoy eta Cristina Palmero izan ziren txapeldunak




Hamaika bikotek hartu zuten parte Mendaroko II. Frontenis maratoian, eta Bartzelonakoak izan ziren garaile. Maite Mariskurrena antolatzaileak esan digunez, "finala oso parekatua izan zen, baina azkenean, betikoak atera ziren garaile". Gipuzkoako bikoatearen aurka jokatu zuten finala, eta etxekoak aurretik joan ziren arren, azkenean markagailuari buelta eman zioten, eta 30-28 irabazi zuten. Bigarren bikotea Maider Mendizabal eta Sara Domingo izan ziren. Goizean goizetik hasi ziren partiduak, eta asteburu hotza izan zen arren, giro bikaina izan zela adierazi digu Maitek: "oso ondo atera zen dena. Giro bikaina izan genuen, eta kantxan aurkariak izan arren, kanpoan lagun onak gara". Sari banaketa igandean egin zuten. Txapela irabazteaz gain, ordulari bana, diploma eta Mendaroko txokolatea jaso zuten irabazleek. Datorren Maiatzaren 18an Zaragozan jokatuko dute. Edonork hartu dezake parte, beraz, norbait frontenis maratoian lehiatzeko animatzen bada, ondorengo telefonora deitu dezake informazio eske: 629 932 458

# Beñat Urainek denboraldiko bigarren txirrindulari lasterketa irabazi du




Mendarotarrek gogor ekin diote txirrindulari denboraldiari. Joan zen larunbatean Beñat Urain izan zen garaile Elgoibarren, eta bere taldekidea Iosu Lazkano, hirugarren postuan sartu zen Oñatiko lasterketan. Beñatek lau urte daramatza txirrindulari tzan, eta duela bi urte ere, bi lasterketa irabazi zituen. Ion Lazkano duela hiru urte hasi zen. Berak esan digunez, lehenengo urtean futbolean aritu zen, baina txirrindularitza gehiago gustatzen omen zaio. Joan zen astean bere taldekidearen atzetik sartzeko aukera izan zuen, baina azke nengo momentuan erori egin zela kontatu digu, 13 urteko mendarotar hauek, Mutrikuko taldean dabiltza. Gipuzkoa mailan korritzen dute. Beraiek azaldu digutenez, hiru multzo bereizten dira, eta beraiek Deba Arroan aritzen dira. Datorren asteburuan Aretxabaletan daukate zita, eta hemendik suerterik onena opa diegu biei.

## Mendaro eta Elgoibarrek telefono gida bateratua izango dute

TU Comunicaciones enpresak, Elgoibar eta Mendaroko telefono gida kaleratuko du datozen egunotan. Argitalpen hau, apirilaren bukaera aldera banatuko da etxez-etxe, eta ez da dirurik ordaindu beharko. Jakina den bezala, mendarotar askok EuskalteI jarri du etxean, eta telefono gida honek, zenbaki berri guztiak bilduko ditu. Honetaz gain, telefono zenbaki zaharra ere agertuko da,

## Soraluzen jokatuko du Kilimonek

Norgehiagoka garrantzitsua dauka aste honetan Kilimonek. Mendarotarrak Soraluzeren kontra jokatuko dute, eta azken postuetatik apur bat aldentzeko aukera izango du. Pasa den astean, 6-0 irabazi zuten Elgoibarren aurka, hiru puntu garrantzitsu lortuz. Kilimonek 20 puntu ditu, eta Soraluzek 21; beraz, mendarotarrak irabaziz gero, sailkapenean aurretik jarriko lirateke. Liga amaitzeko lau jardunaldi besterik ez dira falta; beraz, Kilimonek garaipena ezinbestekoa du.

pr.
KiliBaRRen Kolaboratzailea: Ainhoa Andonegi. Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argilaratua.

# Martxan da Mendaroko

## Herritarrek interneten nabigatzen ikasteko heiburuarekin sortu dute

*fragan marizoaren 26an ireki zufen Mendaroko KZ gunea. Telefono linearekin izandako hainbat arazo gainditu ostean, dena prest dago, eta hasi dira dagoeneko, lehenengo ikastaroak ematen. Herritar guztiek interneten barneratzeko aukera izango dute, teknologia berrien mundua ezagutu eta sarean nabigatzen ikasiko dute. Agurtzane Arizmendi eta Ibai Idlakez arituko dira arduradun lanetan. Esan cligutenez, jende asko apuntatu do ikastaroetara, hala ere, nabigatzera jende gutxi etortzen dela adierazi digute.*

Euskadi informazio gizartean egitasmoaren barruan Interneterako sarbidea eta prestakuntza eskaintzen duten zentroen sarea sortu du Eusko Jaurlaritzak. Herri gehienetan KZ guneak irekitzen ari dira, hetritarrei internet munduan barneratzeko aukera eskainiz. "Konekta Zaitez Herritar" lemapean, martxan da Mendaroko KZ gunea, eta Agurtzane Arizmendik adierazi digunez, harrera ona izan du: "oraindik jende asko ez da enteratu, eta hala ere, 55 pertsona apuntatu dira ikastaroetara". Maila desberdinetako ikastaroak eskaintzen dituzte: Internetera sarbidea; hau da, sarearen oinarrizko ezagupenak alde batetik, eta nabigatzeko prestakuntza sakonagoak, bestetik. Lehenengoa, tutoreek erakusten dute 6 ordutan. Bigarren ikastaroak 16 ordutakoak izango dira, eta Egailaneko irakasleek emango dituzte. Agurtzanek adierazi digunez, interneten erabilera praktikoa irakasten da: "jendeak ez du teoriarik nahi, aspertu egiten da. Xagua erabiltzen irakasten zaie lehenengo, pantailako botoiak, orrialdeak karpetan gordetzen, korreo elektronikoa eta txateatzen irakasten zaie".

Agurtzanek adierazi digunez, sekula aritu ez direnentzat internet gauza harrigarria omen da: "Mendaroko web orrialdean sartu, eta toki ezagunak ikusten dituztenean, edo gustoko duten aldizkariren baten orrialdeetan sartzen direnean, harrituta gelditzen dira".

Bigarren mailako eskolak, Egailaneko irakasleek ematen dituzte. Egunean bi ordu dira; beraz, 8 egunetako ikastaroa izango litzateke. Hala ere, errelebotan lana egiten duen





*Agurtzane Arizmendi da Mendaroko KZ Guneko tutorea*

jendeak arazorik izan ez dezan, klaseak moldatu egin daitezke. Agurtzanek adierazi digunez, herritarrei erraztasunak eman nahi zaizkie. Ikastaro honetan, interneten barneratuko dira ikasleak, eta gauza sakonagoak ezagutuko dituzte.

KZ gunea herritar guztiei zuzenduta dago. Proiektu honen helburu nagusia etxekoandreak, langabetuak, jubilatuak, etorkinak eta makinetan aritzen diren langileak dira. Agurtzaneren hitzetan, "sekula interneten aritu ez den jende guztiari aukera bat eman nahi zaio, baina 16 urtetik gorako herritar guztiak etorri daitezke". Honetaz gain, kanpoko jendea ere etorri daiteke, hau da, ez da derrigorrez mendarotarra izan behar. Jendeak ez du ezer ordaindu behar, ikastaroak eta nabigatzea dohainik dira. Agurtzanek azaldu digunez, inskripzio orria betetzearekin nahikoa da: "izena ematen dutenean, klabe bat ematen zaio ikasle bakoitzari, eta horrekin nahikoa dute nabigatzeko. Honetaz gain, bakoitzak bere helbide elektronikoa izango du, e-mailak bidali edota jasotzeko".

Mendaroko KZ gunea astelehenetik ostiralera dago irekita, goizeko 9retatik 13era eta arratsaldez, 16:00tatik 20:00etara. Udaletxeko hirugarren solairuan dago. Norbaitek izena eman nahi izanez gero, 943-756013 telefonora deitu dezake.

# KZ GUNIEA

## Jose Agustin Arriola: "ondo ikasteko praktikatu egin behar da"



***Jose Agustin Arriolok 65 urte di-tu, efa jubilatuta dago. Denbora libre ugari daukanez, rnundu in-teraktibora jauzi egitea erabaki du. Berak eson digunez, "gauza berriak ikasteko sekula ez da be-randu". 6 ordutako ikastaro baf egin du, efa datorren hilean eman-go den beste ikastaro boterako izena eman du dagoeneko. Jose Agustinek oso gustora ibili dela adierazi digu.***

- Zer dela eta apuntatu zara interneteko kurtsora?

Jubilaturik nago, eta denbora libre ugari daukat; beraz, inter-net mundua ezagutzeko aukera polita izan zitekeela pentsatu nuen.

- Interneten zabiltzan lehenengo aldia al da?

Ez. Jubilatuen egoitzak beste kurtso batzuk antolatu zituen iazko urrian, eta han ere hartu nuen parte. Hala ere, gauzak ondo ikasteko asko praktikatu behar da, bestela ahaztu egiten dira, eta gure adinean gehiago. Ikastaro honetan gauza asko ikasi ditut, eta ez da zaila, baina praktikatu egin behar da. Orain, hasieratik hasi naiz, baina datorren hilean emango den kurtsorako apuntatu naiz.

- Erabilgarria al da internet zure bizitzan?

Ez, nik ez daukat honen beharrik, baina beti dago zer ikasi, eta gustatzen zait. Nere lanean ordenagailuarekin aritzen nin-tzen, baina internet ez nuen ezagutzen. Informazio asko dago-ela esaten dute, baina bertan jarri arte ezin da imaginatu.

- Elorriko al zara KZ gunera nabigatzera?

Ez dakit etorriko naizen. Momentuz ikastaroetara etorriko naiz, eta aurrerantzean beharbada animatuko naiz nabigatze-ra. Kurtsoari probetxua ateratzeko etorri beharko naiz. Ez zait asko gustatzen hau guztia, baina nork daki, beharbada inter-netera engantxatu ere egingo naiz egunen baten!

| | MAIATZAK 0 ASTELERENA | MAIATZAK 7 ASTEARTEA | MAIATZAK 8 ASTEAZICENA | IAMATZAK 9 08TEGUNA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 9:00- 10:00 | EGAILAN 1 hora | EGAILAN 3 hom | EGAIAN 5 hora | EGARAN 7. hora | EGAILAN SA hora |
| 10:00 - 11:00 | EGAILAN 2. hora | EGARAN4thora | EGAILANIM bora | EGAILAN a• hora. | EGAILAN 10. tora |
| 11:00 - 12:00 | | | | | |
| 12.00 -13130 | | | | | |
| V. | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] |
| 11,00 • 17:00 | [illegible] | | | | |
| 17:00 - 18:0D | [illegible] | | | | |
| 18,04...mop | [illegible] | Inlred. 1. hora | Inlrod 3. hom | Inlrod SA hora | [illegible] |
| 11:00 - 20:00 | | Introd, 2. hora | [illegible] | Introd. 6t hora | |

| | MAIATZAK 13 ASTELEEENA | MALATZAK 14 ASTEARTEA | MAIATZAK 15 ASTEAZKENA | MAIATZAK 16 OSTEGUNA | MAIATZAK 17 OSTIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 6.00 - 10:0D | EGAILAN 11 -hora | EGAILAN 13. hora | EGAILAN 15. hora | | |
| 10:00 - 11.00 | EGArLAN 1r hora | EGAILAN 14 -hura | EGAILAN 18. hora | [illegible] | |
| 11:0.3 • 12:00 | | Introd. 1• hora | Introd. 3A hora | Introd. 6 -hora | |
| 12:09 13 01/ | | In1r0c1. 2. hora | Inhal. 4. hora | Introd. 6. hou | |
| [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | [illegible] | |
| 16 OD • 17:00 | [illegible] | EGAILAN 3. hora | EGAILAN 5. hora | EGAILAN 7. hora | EGAILAN 9 -hora |
| 17•00 18:00 | [illegible] | EGAILAN 4. hora | EGAILAN IIM hora | EGAILAhl rhora | EGAILAN 10 -hora |
| 18:00 - 19:00 | | | | | |
| 19:00 - 20 00 | | | | | |

| | MAIATZAK 20 ASTELEHENA | MAIATZAK 21 ASTEARTEA | MAIATZAK 22 ASTEAZKENA | MAIATZAIK 23 051 EGurIA | MAIATZAK 24 OSTIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 9110 - 10:00 | | [illegible] | ., trod 3 -hora | inhol 5 -hnra | |
| 10:00 - 11:00 | | [illegible] | Irod 4. hora | Introcl M hora | |
| 11:00 - 12:00 | | | EGAILAN 1. hora | EGAi LAN 3. hora | EGAJLAN 6 hara |
| 12:00 - 13:00 | | | EGAILAN 2. hora | EGAILAN 4. hora | EGAILAN 6. hora |
| | [illegible] | | | | |
| 16.00 - 17:00 | EGAILAN 11* hora | EGAILAN 13* hora | EGAILAN 15• hora | | |
| 17:00 - 18:00 | EGAILAN 12 -hora | EGAILAN 14. hom | EGAILAN 16. hora | | |
| 18:00 [illegible] | rn1r03. 1. hora | Inhod. 3. hora | Infrod. 6. hora | | |
| 19:00 - 20:00 | lItrod• 2,' hora | IMEM. 4 -hora | Introd. 6 -hora | | |

